

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRURAIZ-GAUNAKO UDALA

Zerbitzu publikoak eskaintzeagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen ordenantza behin betiko onartzea

Jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik eta alegaziorik aurkeztu ez denez, iragarkia 2025eko urriaren 15eko ALHAOn (117. zk.) argitaratu zenetik, behin betiko onartu da zerbitzu publikoak eskaintzeagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen ordenantza. Ordenantza hori, onartutako aldaketaren ondoren, honako hau da:

ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINTZEAGATIK ETA ADMINISTRAZIO JARDUERAK EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Azaroaren 23ko 33/1998 Foru Arauaren bidez aldatutako Lurraldeko Toki Ogasunak arautzen dituen 41/1989 Foru Arauan ezarritakoarekin bat, Udal honek eranskinean zehaztutako zerbitzuak emateagatik eta jarduerak egiteagatik tasak xedatu eta esijitzen ditu, oraingo Ordenantza honen terminoetan. Jarduera horiek ordenantza honen zati osatzaileak dira.

2. artikulua

Ordenantza Iruraiz-Gaunako udalerri eremu osoan aplikatuko da.

II. EGITATE ZERGAGARRIA

3. artikulua

Udalak eraginkorki zerbitzua emateak edo jarduera egiteak eratzen du egitate zerga, bai jarria delako bai partikularrek egiteak edo ez egiteak zeharka bultzatu duelako.

III. SUBJETU PASIBOA

4. artikulua

1. Subjetu pasibo zergadunak Lurralde Historikoaren Zergari buruzko Foru Arau Orokorraren 33. Artikuluak adierazitako pertsona fisiko eta juridikoak eta entitateak dira, zerbitzu eta jarduerak eskatzen badituzte edo haiek onuratuta edo eraginda badira.

2. Zergadunaren ordezkari izango dira:

a) Etxebizitza edo lokalen egoileei onuratu edo eragin dieten zerbitzu edo jarduerak xedatutako tasetan, esandako ondasunen jabeak; kasu honetan kuotek onuradunengan ondorioak izan ditzakete.

b) Suteen prebentzio eta itzaltze, hondamendi, eraikuntza eta eraispenen prebentzio, salbamenduak eta, orokorrean, pertsona eta ondasunen babes zerbitzuak emateak xedatutako tasetan, baita zerbitzua mantentzea ere kontuan hartuta, arriskua aseguratzeko duen entitate edo elkarteak.

c) Lanen eraikitzaileak eta kontratistak, lurzorua eta hiri antolamenduari buruzko araudiak ezarritako hirigintza baimenak lortzeak xedatutako tasetan.

5. artikulua

Tasak ordaintzera behartuta daude:

- Eskatzen dutenak, partikularrek eskatuta egindako zerbitzu edo jardueren kasuan.
- Partikularrek eskatu gabe egindako zerbitzu edo jardueren kasuan, baina hauen ekintzak edo ez egiteak bultzatuta, esandako ekintza edo ez egitea egotzi dakiokenei.

6. artikulua

Subjektu pasiboarekin bat, ordenantza honetatik datozen zerga zorrei tarifen aplikatze arauetan aipatzen diren pertsonen aurre egingo diete.

IV. SALBUESPENAK, GUTXIPENAK ETA BONIFIKAZIOAK**7. artikulua**

Salbuespenak edo beste onura fiskal batzuk ematea aplikatu beharreko xedapen orokorretan ezarritakoari eutsiko zaio.

Hurrengo bonifikazio taula ezartzen da:

	T-0	T-1	T-2	T-3
BIZIKIDETZA UNITATEKO KIDEEN KOPURUA	12.000,00. € EDO GUTXIAGOKO ERRENTA	12.000,01€-TIK LGS-RA (16.576,00. €)	LGS-TIK GORAKO ERRENTA, LGSX1,5 ARTE (16.576,01. €TIK 24.864,00. €RA ARTE)	15XLGS-TIK GORAKO ERRENTA, 2XLGS-RA ARTE (24.864,01. €TIK 33.152,00. €RA ARTE)
1 - 2	%90	%75	%35	%0
3	%95	%90	%50	%25
4	%95	%90	%75	%50
5 edo gehiago	%95	%95	%85	%75

V. ZERGA OINARRIA**8. artikulua**

Zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitzak eratzen du zerga oinarria, eranskinean dauden terminoetan.

VI. KUOTA**9. artikulua**

- Eranskinean xedatutakoarekin bat, zerga kuota izango da tarifa bat aplikatzean lortutako kantitatea, horretarako adierazitako kantitate finkoa edo bi prozedurak batera aplikatzean lortutako kantitatea.

VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA**10. artikulua**

- Tasa zerbitzua ematen hasten edo jarduera egiten denean sortzen da.

VIII. KITAPENA ETA DIRU SARRERA**11. artikulua**

Udalak kontzeptu bakoitzetik bidezko kitapena burutuko du, horretarako, zenbateko kitatua eskudirutan sartuko du, eranskineko ordainarazpen bakoitzaren arau partikularrekin bat.

Hori guztia tasen kobrantza autolikidazio erregimenean esijitu daitekela kaltetan gabe.

Zergapeko egitatea ordenantza honen araberaosatzen duten aurrekontu objektiboak gertatzen direnean sortuko da zergapeko betebeharra.

a) Zergaldia bat dator urte naturalarekin, merkataritza- edo industria-jardueretan altak edo bajak gertatzen direnean izan ezik; kasu horretan, alta zein hiruhilekotan gertatzen den, orduan hasiko da zergaldia, eta baja gertatzen den egunaren hiruhilekoa amaituko da.

b) Tasa zergaldiaren lehenengo egunean sortzen da.

c) Merkataritza- edo industria-jardueren altaren kasuan, tasaren kuotaren zenbatekoa izango da alta ematen den lehen hiruhilekotik urteko azken hiruhilekora arte, biak barne, igarotzen den denborari proportzionalki dagokiona.

d) Jardueretan baja hartuz gero, tasaren kuotaren zenbatekoa urteko lehen hiruhilekoaren eta baja gertatzen den hiruhilekoaren arteko aldiari dagokiona izango da, biak barne.

IX. TASEN KUDEAKETA

12. artikulua

Ordenantza honek araututako tasen kitapenari, dirubilketari eta ikuskapenari buruzko guztian, zerga-hausteak kalifikatzeari buruzkoan, baita kasu bakoitzean beraiei dagozkien zehapenetan ere, Arabako Lurralde Historikoko Zergari buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoa beteko da.

X. AZKEN XEDAPENA

Oraingo ordenantza eta bere eranskina, honek adierazten duen egunean behin-betiko onetsi baitzen, ALHAOn argitaratzen den egunean indarrean jarriko da eta bere aldaketa edo indargabetzea erabaki arte iraungo du.

ERANSKINA

EPIGRAFEA. ZABORRA BILTZEKO ZERBITZUA ESKAINTZEA

1 epigrafea: Etxebizitzak.

Bakoitzeko: 138,00 euro.

2. epigrafea. Lanbide lokalak.

Bakoitzeko: 138,00 euro.

3. epigrafea. Ostalaritza.

- Tabernak: 616,50 euro.

- Taberna bereziak: 616,50 euro.

- Sardexka bateko jatetxeak: 1.250,00 euro.

- Sardexka biko jatetxeak: 1250,00 euro.

- Hiru sardexkako edo gehiagoko jatetxeak: 1.849,50 euro.

- Hotela: 1.849,50 euro.

4. epigrafea. Dendak.

Bakoitzeko: 150,00 euro.

5. epigrafea. Industria.

- 2 langile gehienez: 56,14 euro.

- 3-6 langile: 160,68 euro.

- 7-15 langile: 388,64 euro.

- 16-30 langile: 438,00 euro.

- 31-100 langile: 736,02 euro.

- 101-250 langile: 739,60 euro.

6. epigrafea. Osasun alorrekoak: ospitaleak, klinikak, geriatri egoitzak, anbulatorioak

Bakoitzeko: 1.250,00 euro.

Azilun, 2025eko abenduaren 5ean

Alkatea

IRATXE DEL BARCO MURUA